


## BALOREZKO PROPOSAMENA:



Gure bezeroen beharrak asetzeko **janari prestatua** saltzeko Donostiko Altza auzoan denda bat sortu dugu, bezeroek **denbora aurreztu** dezaten janari prestatua erosiz, eta bero jateko aukera mantenduz, **beroa mantenduko duten enbalaian** bitartez.

Bezeroen beharrak asetzen ditugu, hau da, gure denda sortuta dago gure bezeroek denbora ez dutenean guregana etortzeko janari prestatua eroitera. Orain esandakoarekin, **eskuragarritasunak** nabarmenduko gaitu, hau da, **erraztasunak** emango ditugu janari prestatua nahi dutenentzat edo sukaldatzen ez dakitenentzat.



Beste dendetaz bereizten gara, **prezio-kalitate onak** ditugulako eta gure **gertutasunagatik**: auzoan gaude eta gainera, berritasuna eskaintzen dugu. Auzoan, mota honetako beste dendak ez daudelako.

Gure janari dendak, eskaintza zabala izango du (**edozein motatako janaria** salduz), denbora aurrezpena emateko asmoarekin. Gure bezeroen gusto ezberdinetako, denetariko janaria salduko dugu, hau da, janari beganoak, begetarianoak, denetik jaten dutenak...



Gainera, ingurumen inpaktua ere kontutan hartzen dugu eta horregatik **enbalaia berrerabilgarriak** eskainiko ditugu janaria bertan eramateko.

Enbalaia itzuliz gero, onurak emango zaizkio bezeroari: hurrengo erosketan deskontua egingo baitzaie edo hurrengo taperra ordainduko ez zaio bezeroari.

**Erosotasuna** eskainiko dugu, janaria prest salduko dugulako eta modu honetan erosten digutenek sukaldatu eta berotu beharrik ez dutelako izango, (ontziek beroa mantentzen dute).

**Produktuak erabilerrazak** izango dira, enbalaia ireki errazak izango direlako. Zauden tokian zaudela, ireki eta jan besterik ez duzu egin behako. Azkenik, merkea izango da; gaur egungo produktuen prezioak ikusita, askoz merkeago aterako litzateke janari prestatua erostea, bakoitzak bere etxean sukaldatzea baino.